

# AIARALDEA *hemen*



IDOIA ARZUAGA:  
“Kickboxingak konfiantza  
handiagoa eman dit  
kalean ere” 18-19 or.

AIARALDEA JAIETAN:  
San Joan Astobitza, Sanpedropeko,  
Luiaondo, Arakaldo, Areta eta Ugarteko  
jaietari buruzko gehigarri berezia



“Deseroso  
sentiara zte  
ere bada  
polita eta  
nik uste  
liburu  
honek  
lortzen  
duela”

ARTZINIEGA 6  
Arteko Gure Ama  
ikastetxe zuzendaritza,  
dimititzeko zorian  
Eskolako zuzendaritzak  
dimisioa aurkeztuko du  
Hezkuntza Sailak lanordua  
mantentzen ez baditu

KIROLA 20  
Olinpiar Jokoetako argi-  
zuzia eramango du Javier  
Lopez amurriarrak  
Bridgestoneko medikua da  
Lopez, eta enpresa hori da  
aurtengo Pariseko jokoetako  
babesleetako bat

## Amurrioren euskaraz bizi nahi dugu!

**Ekainak 21, ostirala**  
19:30ean, Amurrioko  
udaletxearen aurrean

### AGERRALDI HERRITARRA



AIARALDEA  
KOMUNIKABIDEAK ZURE  
BABESA BEHAR DU

**EMAN ZURE  
ATXIKIMENDUA  
HEMEN**



## KALITATEZKO PRODUKTU KORPORATIBOA

Marken komunikazio eraginkorrerako  
kalitatezko produktuak diseinatu eta  
ekoizten ditugu.

# grafik.eus

University  
of the  
Basque  
Country

Un  
of  
Bas  
Co

# herriz herri

## Artziniega

### Eskolako zuzendaritzak dimisioa aurkeztuko du Hezkuntza Sailak lanorduak mantentzen ez baditu



Klasera sartu baino lehen egin zuten protesta astelehenean. Artziniegako hezkuntza komunitatea

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Artziniegako Arteko Gure Ama Eskolako zuzendaritzak hezkuntza komunitateari jakinarazi dio hurrengo ikasturtera begira dimitutuko dela Hezkuntza Sailak kudeaketa lanetarako lan orduak murrizten baditu. Izan ere, 2023/2024 ikasturtean 1,66 lanaldi izan dituzte horretarako eta hurrengoan 1,33 egongo dira, Eusko Jaurlaritzak bidali dien Lanpostuen Zerrendaren arabera.

"Gure eginkizunen artean, administratiboetaz gain (kudeaketa ekonomikoa, bekak...), zuei zerbitzu egokia eskaintzen saiatzea ere badago (telefonoa, helbide elektronikoa, zentroan sartzeko atea...). Ziurtatu ahal dizuegu, emandako ordu-kredituarekin, ezinezkoa izango zaigula zeregin horiek guztiak betetzea", azaldu dute gurasoei bidalitako dokumentuan.

"Ez da borondate kontua, azken bi ikasturteetan dagozkizigun lanorduetatik kanpo bete ditugu gure eginkizunak, konpromisoa erakutsi

dugu, baina hau ez da konpromiso kontua, ezintasuna baizik, murrizketarekin ez dugu denbora nahikoa izango ikastetxea kudeatzeko", adierazi dio taldeak Aiaraldea Komunikabideari.

#### Negoiazioak

Egoera konpontzeko asmoz, zuzendaritzak Gasteizera jo zuen Hezkuntza Ordezkaritzarekin biltzeko, baina elkarriketek ez dute emaitza positiborik utzi. Guztiz kontrakoa, zuzendaritzako kideen amorrua piztu dute.

Izan ere, solasaldi horretan hezkuntza ordezkariek adierazi zieten duela bi urte sindikatuekin sinatutako akordioaren irizpideak aplikatuko dituztela, baina ordezkaritzak bidalitako taulan ikus daiteke datuak ez datozela bat sinatutakoarekin.

"Gero sindikatuekin harremanetan jarri ginen eta adierazi ziguten akordio horretako kontzeptu batzuk jarri dituela indarrean Eusko Jaurlaritzak, baina langile gehiago ekarriko dizkigutela diotenak, aldiz, ez. Adibidez, administraziorako eta kudeaketarako dagoki-

gun arduradun erdia ez digute bermatu, ezta IKT arduraduna ere", salatu dute zuzendaritzako kideek.

Hori guztia aintzat hartuta, ikastetxeko zuzendaritzan aritzen diren arduradunek laguntza eskatu diote herriko hezkuntza komunitateari, bestela euren karguei uko egin beharko diete eta.

#### Elkarretaratzea ostiralean

Zuzendaritzari babesa adierazteko elkarretaratzea egin zuten Artziniegako hezkuntza komunitateko kideek astelehenean. Ostiralerako, aldiz, elkarretaratzea deitu du Udalak.

Tokiko erakundea oso kezkatuta dago udalerriko oinarriko zenbait zerbitzu publiko jasaten ari diren murrizketengatik. Eskolaren egoeraz gain, Correseko bulegoaren itxiera eta osasun zentroaren udako ordutegi murrizketa ere salatuko dituzte ostiraleko mobilizazioan.

Horrez gain, Udalak mozioa onartu du eskolaren zuzendaritzari babesa adierazteko, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abestentzioarekin.

### Correoseko bulegoa ekainaren 28ra arte itxita egongo dela salatu dute

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Artziniegako Udalak jakinarazi du Correos enpresak berriro itxi duela herriko bulegoa ekainaren 28ra arte, egun hori barne. Tokiko erakundeak behin baino gehiagotan salatu du posta zerbitzu publikoarekin gertatzen ari dena. Izan ere, postari batek erretiroa hartu zuenetik ez dute bere lanpostua bete eta, hori dela medio, gertatzen den langileak baja hartzean ez dute bere hutsunea bete, maiztzean gertatu zen moduan.

Gauzak horrela, Udalak adierazi du kezkatuta dagoela zerbitzuaren etorkizuna eta bideragarritasuna dela eta: "Correosek ez die gure erreklamazioei eran-



Itxita dago bulegoa. Artziniegako Udala

tzun, eta ez dugu ikusten egoera hori konpontzeko urratsik egiten denik".

Aldi berean, tokiko erakundeak proposatu die herritarrei euren kezak adierazteko atencionalclientegrupocorreos@correos.com helbide elektronikoa.

## ORRIZKO 2024

# Sarjuanak

#### EKAINAK 21

17:00etatik aurrera

FINALAK: Eskolarteko paleta eta esku pilota txapelketa. Frontoian

22:00

Ubixetako dantzaldia  
Plazan

#### EKAINAK 22

10:00

Bertoko produktuen azoka

20:00

Pop-rock kontzertua.  
Agate Deuna Abesbatza eta Amurrioko Incantum abesbatza. Elizan.

#### EKAINAK 23

19:00

BERTSO POTEAO Zubiaur plazatik hasita.

22:30

Ikuskizun piromusikala eta pirulo erreketak. Ipergortan

23:00

LUHARTZ erromeria.

AMURRIOKO UDALAK DIRULAGUNTZA KENDU DIO  
ESKUALDEKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDE BAKARRARI


# “EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU” AGERRALDI HERRITARRA

**Ekainak 21, ostirala, 19:30**

*Amurrioko udaletxearen aurrean*

18:30etik aurrera haurrentzako tailer eta jolasak


## Trenez Amurrora



AIARALDEA KOMUNIKABIDEAK ZURE BABESA BEHAR DU

***Jokoan dagoena asko da,  
Amurrioko Udalaren euskararekiko  
politika aldatu behar dugu!***

*[www.labur.eus/amurrioneuskarazbizinahidugu](http://www.labur.eus/amurrioneuskarazbizinahidugu)*



***Amurrion euskaraz bizi nahi dugu!***

**AIARALDEA**

KOMUNIKABIDE  
FAKTORIA

*#EuskarazkoKomunikabideenAlde*

# herriz herri

## Arrankudiaga-Zollo

### Kontsultategia urteko lanegunen erdietan itxita dagoela salatu du alkateak

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Txutxi Ariznabarreta Arrankudiaga-Zolloko alkateak Zeberio-ra jo du prentsurrekoa eskaintzeko, Ekain Goti herri horretako udal buruarekin eta Alberto Ugarriza Zaratomoko alkatearekin batera. Hirurek salatu dute Osakidetza arreta mailak behera egin duela azken urteetan eta, aldi berean, azpimarratu dute Eusko Jaurlaritzak osasungintza publikoa de-

segiteko bidea hartu duela, euren ustez. Arrankudiaga-Zolloren kasuan, Ariznabarretak honakoa azaldu du: "Kontsultategian aspalditik egunean bi ordutan besterik artatzen ez bazen ere, jadanik, urteko lanegunen erdietan kontsultategia itxita egoten da eta herritarrek Ugaoko anbulategira edo larrialdi zerbitzuetara joatera behartuta daude".

Honakoa erantsi du alkateak: "Horri guztiari gehitzen badiogu mediku eta erizainek duten lan

karga izugarria, zitak hartzeko dauden arazoak eta gero eta epe luzeagoak, eskaintzen zaigun osasun zerbitzuaren kalitatea behera doa egunetik egunera eta egoera jasanezina da".

EH Bilduko udal ordezkariak aipatu du COVID-19 birusaren pandemia izan zela aitzakia zerbitzua murrizteko eta geroztik joera hori indartu dela. Hain zuzen, Ariznabarretak eta beste alkateek iritzi dute Eusko Jaurlaritzak Osakidetza desegiten ari dela.

## Laudio

### Epaiketa irabazi du amiantoaren ondorioz hil zen Aceros de Llodio langilearen familiak



Aceros de Llodion lan egiten zuen beharginak.

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Cofivacasa enpresak, hau da, Aceros de Llodio konpainiaren ondorengoak, 129.447 euroko kalte-ordainarekin konpentsatu beharko du langile ohi baten familia.

Behargina 2019an zendu zen eta autopsian asbestoa topatu zuten bere gorpuan; hau da, amiantoak airera jaurtitzeko duen eta arnastuz gero minbizia eragin dezakeen materiala.

Familiak epaitegira eraman zuen kasua, heriotza eragin zuen gaixotasunak (asbestosia) gaitz profesionala izan zelako eta amiantoz beteriko lan ingurune batekin harremana izateagatik sortu zelako, Osalanen txostenek eta lekukoek frogatu duten moduan.

Berez, hildakoa Aceros de Llodio enpresako kidea izan zen 1966 eta 1982 urteen artean, garraiolari lanetan. Zepa eta hondakinak zabortegira eramaten zituen inolako segurtasun neuririk gabe.

#### Familiaren helegitea

Senideek euren helburu ekonomikoa bete badute ere, ez daude ados Gizarte Epaitegiko 9. Aretoko epaileak erabakita-

koarekin, Sidenor enpresa absolutu baitu. Hori dela medio, helegitea aurkeztuko dute.

Blanca Ruiz de Eginok abokatuak azaldu duenez, "hainbat epaiketa Langileen Estatutuak ezartzen dute Sidenor izan dela Acenor (Aceros de Llodio) konpainiaren ondorengoa eta jardura bera lantzen duela. Ezin dugu onartu epai honek bide ematea absolutzio gehiago eskuratzeko".

#### "Jarrera negargarria"

Bide batez, abokatuak baliatu du aukera kritikatzeko Arabako Gizarte Segurantzaren jarrera amiantoari lotutako kasuetan. "2019an hil zen langilea eta bi urte behar izan zituzten bere emazteari alargun-presazioa emateko, gaitz profesionala zela aitortuta. Hori dela eta, nabarmen atzeratu da epaiketa".

Edonola ere, Blanca Ruiz de Eginok azpimarratu du hau ez dela kasu isolatua izan. "Arabako Gizarte Segurantzak oso txarto tratatzen ditu langile gaixoak eta senideak. Ez dute informatzen, berandutzen dira, taulen berri txarto ematen dute eta, oro har, ez diete kasurik egiten amiantoaren biktimei. Lotsagarria da".

AIARALDEA

# IBILIZ

Aiaraldeko II. udaleku ibiltariak  
**IRAILAK 1-5**

Orozkotik

Tertangara

**IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIOA** (izena emateko azken eguna uztailak 31)

<p><a href="http://www.faktoria.eu">www.faktoria.eu</a> 693 855 312 (Aritz)</p>	<p>Bazkideak <b>75€</b> Ez bazkideak <b>90€</b></p>	<p><b>14-17 urte bitartean</b> (2010-2007)</p>
---	---	--

AIARALDEA EKINTZEN  
**FAK  
TO-  
RIA**

**GAZ-  
TE-  
GAZ  
TEAK**  
AIARALDEAN

## Laudio

## Naizen elkarteak jaso du Laudio Harro saria



Zubiko Maleloia gisa ezagutzen den taberna gunean eman zieten saria Naizen elkarteak kideei. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Laudio Harro egunaren bigarren edizioa ospatu dute asteburuan. Hainbat jarduera egin zituzten ostiralean, baina atzo egin zuten ekitaldi nagusia, 18:00etan Zubiko Maleloia gisa ezagutzen den taberna gunean.

I. Laudio Harrosaria eman zioten bertan Naizen elkarteari. Modu horretan aitortu nahi izan zuten eragile horretako kideek haur eta nerabe transen alde eginiko lana. Trans pertsonen errealitatea izan zuten mintzagai, hain zuzen, saria eman baino lehen irakurritako testuan. Aipamen berezia egin zioten Esti Urresolaren 20.000 *especies de abejas*

filmari, aurreko egunean proiektatu baitzuten, eta pelikulak pairatutako zentsura saiakera kasua salatu zuten. Sari banaketaren ostean, kalejira egon zen Aiarandreen Taupadak batukada feministaren eskutik, herrian barrena. Iluntzean, aldiz, bi jarduera egon ziren: DJ Isma eta Andriginaren emanaldi ibiltaria eta La Furiaren kontzertua.

## Kamioien aparkalekuko sei langileak kaleratzeko asmoa izatea leporatu diote Udalari

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Iragan astean jakinarazi zuen Laudioko Udalak 24 orduko zaintza zerbitzu berria abiatu nahi zuela Arantzarko poligonoko kamioien aparkalekuan, eta ez zuela aurreikusten gaur egun bertan beharrenda dauden langileak subrogatu ahal izatea. Albiste horri erantzun dio ELAK orain. Sindikatuak Udalari leporatu dio Estacionamientos y Servicios

enpresako sei langileak kaleratzeko asmoa izatea, eta iragarri du beharginek bi asteko greba abiatuko dutela datorren astean.

ELAKo kideek gogorarazi dute aparkalekuko langileek lanuzteak eta mobilizazioak egin dituztela azken bi hilabeteetan, "euren egoera prekarioa salatzeko". Izan ere, sindikatuak nabarmendu duenez, beharginek gutxieneko soldata jasotzen dute, "estatuko hitzarmena aplikatzen baitzaie".

Sindikatuak bilera eskatu zion Udalari gaiaz hitz egiteko eta bertan jaso zuten ezuzteko albiste. Langileen ordezkariak "harriduraz" hartu dute berria, eta Udalaren jarrera deitoratu dute, uste dutelako erabaki hori "greba zigortzeko" hartu duela tokiko erakundeak. "Langileek soldata erabat prekarioak hobetzeko eskaera egin dutenean erabaki du Udalak langile horien lan segurtasuna ezbaian jartzea", nabarmendu dute.

## Udalak azaldu du urratsak ematen ari dela Aretako gasolindegia irekiera ekiditeko



Martxoan mobilizazioa egin zuten auzokideek gasolindegia irekiera ekiditeko. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Laudioko Udalak bilera deitu zuen iragan astean Aretako herritarrei azaltzeko zein den egoera Gasteiz kalean enpresa batek eraiki nahi duen gasolindegia merkeari (*low cost*) dagokionez. Auzo Kontseiluko kide batek Aiaraldea Komunikabideari argitu dionez, jasotako mezuak lasaitu ditu, baina ez dute inondik inora baztertzen mobilizazioak eta protestak deitzea Udalaren ekimenak nahikoa ez badira.

Gauzak horrela, tokiko erakunde ordezkariek azaldu zuten hiru modutan saiatzen ari direla azpiegitura hori eraikitzea ekiditen, betiere legearen barruan. Alde batetik, bide legala jorratzen ari dira eta horretarako hainbat txosten eskatu dizkiete Arabako Foru Aldundiari zein Eusko Jaurlaritzari. Berez,

printzipioz, HAPOa oinarritzat hartuta, Udalak ezin du ukatu jarduera baimena, baina bai enpresak egin dezakeena asko murriztu obren baimena eskatzen badu.

Horri lotuta, erakunde teknikariak Gasteiz kaleko auzotarren lekukotzak jaso zituzten, salatu baitzuten makinak lursailera sartu zirenean etxeak mugitu zirela.

### Bide politikoa

Udal gobernu taldeak hartuko duen beste bidea izango da politikoa, enpresarekin negoziatzen edo adierazten zein den aretaren jarrera.

Azkenik, eta epe motz edo ertainera begira, Udalak Plan Orokor Berezia garatzea nahiko luke, HAPOren barruan, ekiditeko beste enpresa batek antzeko proiektua aurkeztea egungoak uko egiten badu.

**QUICK PC REPAIR**  
Informatika argi eta erraz



ETXEZ  
ETXEKO  
ZERBITZUA  
gainkosturik  
gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **RENOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12  
[www.quickpcrepair.es](http://www.quickpcrepair.es) · [quickpcrepair@quickpcrepair.es](mailto:quickpcrepair@quickpcrepair.es)

# herriz herri

## Lezama

Akordioa adostu dute eraso jaso zuen familiak eta erasotzaileak. Hiru urte eta bederatzi hilabeteko espetxe zigorra onartu du polizia ohiak eta indultuaren bidea hartuko du kartzela ekiditeko.

## Hiru urte eta bederatzi hilabeteko espetxe zigorra onartu du Ezker Abertzaleko familia baten etxea tirokatu zuen polizia nazional ohiak



Lezamako polizia nazional ohia Gasteizko epaitegian, iragan ekainaren 10ean. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Akordioarekin amaitu da Lezamako Ezker Abertzaleko familia baten etxearen kontra egindako tiroaren egiletza argitu behar zuen epaiketa. Iragan ekainaren 10ean egin behar zen Gasteizko epaitegietan, baina akordioa erdietsi zuten fiskaltzak, defentsako abokatuak eta akusazio partikularrak. Negoziazio luzea izan zen eta horren ondoren Lezaman bizi den polizia ohiak onartu zuen berarekin zuelatiroa eta hiru urte eta bederatzi hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten kalteak eragiteagatik (200 euro ordaindu beharko ditu) eta gerra armak biltzeagatik.

Gainera, sei urtez eta bederatzi hilabetez armak edukitzeko debekua izango du.

Erabaki horrekin amaitu da bost urteko ibilbidea familiarentzat, baina ez, ordea, erasoaren egilearentzat, indultua eskatu eta lortu beharko baitu espetxean ez sartzeko. Edonola ere, horren alde ere egin du akusazio partikularrak, zigortuaren adina aintzat hartuta (ia 80 urte ditu), besteak beste.

Gauzak horrela, polizia nazional erretiratuak bere gain hartu du 2019an tiro egin izana Lezamako Ezker Abertzaleko familiaren etxearen kontra, bizilagunak barruan zeudelarik, gainera.

Poliziak tiroaren ardura hartu badu ere, egun berean (hau da,

2019ko urtarrilaren 6an) eta hurrengoetan egileak ez zuen egingakoa onartu. Urtarrilaren 10ean, ertzainak etxea miazera joan zirenean, akusatuak ez zuen ukatu tiroa egin izana eta gertakariari buruzko hainbat azalpen eskaini zituen.

Jarraian, modu boluntarioan, agenteak gidatu zituen erabilitako armaren ezkutalekura: bere etxean zegoen zulo naturala, harriekin estalitakoa. Star markako 9 milimetroko pistola luzea zen erabili zuen arma, eta akusatuak ez zuen hori izateko beharrezko baimenik.

Dena den, miaketa horretan eta aurreko egunetan egindako esku-hartzeetan Ertzaintzak arma

### Polizia nazional ohiak indultua eskatu beharko du espetxeratzea ekiditeko

biltegi handia aurkitu zuen. Besteak beste, bederatzi pistola topatu zituzten, horietako asko baimenik gabekoak edota erregistroa ezabaturata zutenak.

#### Familiaren balorazioa

Bere etxea tirokatua ikusi zuen familiak lasaitasunez hartu du prozesuaren emaitza. Azpimarratu du justiziak zein zigortuak bost urte izan dituztela neurriak hartzeko, eta polizia ohiak denbora izan duela aurretik kontuak argitzeke.

Edonola ere, senideek positibotzat hartu dute epaiak frogatutzat jasotzen duela tiroa ez zela kasualitatez gertatu eta euren etxearen kontra apropos egin zuela, arrazoi politikoengatik, euren ustez.

## Amurrio

# Kale garbiketako langileek mobilizatzeari ekin diote, soldata izoztuta dutelako

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Amurrioko kale garbiketa egiten duten beharginekelkarretarantzak egiteari ekin diote astelehenero eta ostiralero udaletxearen aurrean, goizeko 10:00etan. Mobilizazioen arrazoia da lan hitzarmen berria negoziatzeari ekin diotenean enpresak esan diela ez dagoela inolako tarterik soldata igotzeko, ez aurten, ez hurrengo lau urteetan.

Enpresak adierazi die langileei Amurrioko Udalak sinatutako kontratuan ez dela jasotzen inolako klausularik hori egiteko, tokiko erakundeak ez baitu soldaten eguneraketarik edo igogerarik jasotzen baldintzetan.

Ondorioz, Pre-Zero azpikontratutako enpresak aurreratu die behaginei ez duela inondik ino-



Protestak abiatu dituzte jadanik langileek. UKBerri

ra bere gain hartuko soldata igorarik, eta erantsi du zerbitzua defizitarioa dela.

Gauzak horrela, Pre-Zerok langileek azaldu dute eurak ez direla "enpresaren eta Amurrioko Uda-

laren kudeaketa txarraren" erantzuleak eta ez daudela prest lau urtez soldata izoztuta izateko. Horregatik, hain zuzen, eskatu diete herritarrei babesa emateko euren borrokan.

## Berrikusi plataforma digitala aurkeztu dute, tokiko negozioen jarduera suspertzeko



Maiatzean aurkeztu zuten egitasmoa. Aiaraldea.eus

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Izan Amurrio, Udala eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila elkarlanean aritu dira Berrikusi egitasmoan. Proiektu horren xedea da tokiko ekonomia suspertzea, hiriko merkataritza-, ostalaritza-, turismo-, kultura-, kirol- eta aisialdi-jarduerak ardatz izanda.

Horretarako tresna nagusia,

kanpainez gain, Amurrio Berrikusi aplikazioa da. Bitarteko horrekin, tokiko zerbitzuak egokitu nahi dituzte kontsumoak izan duen azken urteetako eraldaketa erradikalera. Aplikazioaren bidez, saltokiek erosketa-esperientzia baliotsuak eskaintzea espero dute, produktuen eskuragarritasunetik harago doazena, kontsumitzaileen egungo beharrian eta kezkekin sakonki konektatuta.

# Ongi Etorri AMURRIO BERRIKUSI!

## 3.000€

-KO BI BONOREN ZOZKETA!

**PARTE HARTU  
ZOKETAN  
EKAINAREN  
10ETIK 30ERA**

ZOKETA UZTAILAREN  
3AN EGINGO DA



**1. DESKARGATU  
APP-A ZURE  
SAKELEKOAN**



**2. EGIN ZURE  
EROSKETA**  
\*KOMERTZIO  
PARTE-HARTZAILEETAN



**3. IGO ZURE  
TIKETA APP-RA**  
\*TIKETAK MINIMO 20€-KOAK  
IZAN BEHARKO DIRA



**AMURRIO**  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

**Izan AMURRIO**

**EUSKO JAURLARITZA**  **GOBIERNO VASCO**  
TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO



Amurrio  
Berrikusi

KONTSULTA EZAZU  
KOMERTZIO  
PARTE-HARTZAILEEN  
ZERRENDA  
APLIKAZIOAN

# kultura

## “Plazera izan da liburu hau Juana Dolores egilearekin itzultzea”



**MAIDER RAMIREZ MARTIN** (Laudio, 2002) ITZULTZAILEAREN LEHEN LANA IZAN DA *GIRGILERIA*. BERE OGIBIDEARI ZEIN OLERKI BILDUMARI BERARI BURUZ MINTZATU DA AIARALDEA KOMUNIKABIDEAREKIN.



Testua **Aitor Aspuru Saez** Argazkiak **Naia Vallejo Torres**

### Hau izan da zure lehen itzulpen profesionala, ezta?

Bai, hau da argitaratu dudana lehen itzulpena, Katakarak argitaletxeko olerki liburua. Asko ikasi dut, ez bakarrik itzulpenaren alde, nahiz eta poesia ez den graduaren gehien lantzen den generoa eta alde horretatik erronka izan den.

Edonola ere, horretaz gain, lan fluxuaz eta benetan mundu erreala nolakoa den ulertzeko balio izan dit: zuzenketak, edizioa... Proiektua bere osotasunean bizi izan dut, itzulgaia jasotzen duzuniketaz liburu eskuetara heldu arte.

### Nola heldu zitzaizun proposamena?

Hau da Katakrakek aurkeztu duen lehenengo alea poesia bilduman. Bigarrena izango da *Rifqa*,

Mohammed Al-Kurd olerkari palestinarrena.

Iazko udan ikaskide baten bitartez heldu zitzaidan. Argitaletxeko kideek galdetu zioten ea ezagutzen zuen norbait kataluniarretik itzultzeko eta niri proposatu zidan.

### Liburu hau estilo ariketa izateaz gain, hautsak harrotu ditu Katalunian, ezta?

Bai, ez bakarrik liburuagatik. Egileak eskaini dituen elkarrizketetan kritika egiten dio, nolabait, Kataluniako elite kulturalari, hainbat desadostasun dituelako horrekin. Izan ere, etorkin andaluziarren alaba da eta hizkuntza ulertzeko moduari buruz aritzean polemika sortu zuen, bereziki, zuzentasuna eta hizkuntza zer den iritzi zuenean. Berarentzat ez da soilik filologoen egiten dutena edo hiztegiaren dagoena, kalean egiten dena ere bada.

Eztabaida hori Euskal Herrira

ekar dezakegu: Zer den kultura kataluniarra, nork egiten duen... Berak baditu bi antzezlan, bat kataluniarrez eta bestea gazteleraz, eta aldarrikatzen du hori ere badela kultura kataluniarra.

### Eleberria eta olerkia itzultzea oso ezberdina da. Zure itzulpen batzuk jatorrizkoak baino nabarmen luzeagoak dira, nola ekin diozu lanari?

Mezua beti egon behar da hori eta, detektatzen baduzu, errazagoa da. Ez da oso liburu kanonikoa, ez ditu neurriak jarraitzen, baina baditu beste baliabide batzuk eta islatu nahi izan ditut.

Eстетika eta diseinua oso zainduak dira. Esaterako, poema batzuk badirudi karratuak direla eta saiatu naiz irizpide hori jarraitzen, baina batzuetan ez da posible izan, euskarazko hitzak eta egiturak luzeagoak baitira.

Saiatu nintzen hori lortzen eta

horrekarri du poema luzeagoak, eta esaldiak moztu izana, beste lerro batean jartzeko. Horretarako harreman zuzena izan dut egilearekin eta berak konfiantza osoa izan du nigan.

### Presioa sentitu duzu? Kataluniarrezko bertsioa eta zurea aurrez aurre daude liburuan eta, gutxi gorabehera, alderatu daitezke.

Bai, puntu batean bai, presio puntua egon da. Lana erraz alderatu daiteke, baina ariketa polita da irakurleak ikusteko beste bertsio bat dela. Frantziarrez itzuliko dute eta beste bertsio bat izango da hori ere.

Dena den, modu positiboan baloratu dut ikusten baita lana badagoela atzean.

### Zer moduz harremana Juana Doloresekin?

Oso ondo. Benetan esan behar

du plazera izan dela berarekin lan egitea. Alde batetik, nahi zuen dena ondo ateratzea eta liburuaren eta itzulpenaren oso gainean egon da. Amaitzeko gutxi falta zenean esaten zidan: "ni ez naiz mizkina, baina dena ondo ateratzea nahi dut".

Nik berdin sentitu dut eta benetan luxua izan da berarekin aritzea, edozein zalantza galdetzea, bera ere asko kezkatu delako nitaz. Bazekien nire lehen lan profesionala zela eta galdetu dit ea eroso nenbilen lan erritmoekin edo dena delakoarekin.

Ea Euskal Herrira etortzen den eta elkarrekin aurkeztu ahal dugun.

### Ezagutzen zenuen aurretik?

Bere lanak ez nituen ezagutzen, baina banekien nor zen. Diziplina anitzeko sortzailea da eta sare sozialetan badauka oihartzuna.

### Liburuaren berezitasunen



**artean badaude aipu garaikideak. Rosaliarenak, La Zowirenak... Bide on bat da jendearekin konektatzeko?**

Alde batetik, irakurle gazteagoak jaso dezake gertutasun keinua. Aldi berean, hemendik urte batzuetara agian inork ez du gogoratuko nortzuk diren, edo *push up* edo *eyeliner* zer den galduko da.

Hala ere, uste dut ez dagoela txarto eta zentzua duela, idatzitako garai horretako isla badelako. Baditu beste aipu batzuk. Adibidez, Apokalipsiko zati bat dauka eta otoi batekin amaitzen da. Uste dut jolasten duela bi iruditegi horiekin. Gaua eta parranda, mutilak eta sexua eta beste elementu klasikoagoa batzuk.

**Jatorrizko liburua laburragoa zen eta gainera testuak berriki si ditu. Nola eragin dizu horrek zuri?**

Sartu ditu poema berri batzuk, ez asko. Badago amaieran egilearen oharra, azaltzen duena zergatik eta nola idatzi dituen eta batzuk aldatu direla.

Nik iazko udan irakurri nuen eta orduan hasi nintzen itzultzen, baina berak berehala bidali zuen bertsio berria eta horren gainean lan egin dut.

2020an Amadeu Oller Saria irabazi zuen lan horrekin eta gero zenbait aldaketa egin nahi izan ditu.

Ziurrenik niri ere gertatuko zait etorkizunean, pentsatuko dudala "zergatik ez zaitzaidan hau bururatu, beste horren ordez".

**Zein ekarpen du *Girgileriak*? Zergatik gomendatuko zenuke?**

Duela pare bat aste egon nintzen Gasteizko Gaztetxean. Bertako literatura taldeak mahaingurua antolatu zuen Joseba Sarrionandia, Martin Bidaurre eta Uxue Apaolazarekin eta aipatu zuten hementxo idazleek ez dituztela euren liburuak gomendatzen eta beste leku batzuetan, Estatu Batuetan, esaterako, bestelako kultura dutela.

Nik gomendatzen dut, jakina, *Girgileria* irakurtzea. Poesia zaleak eleberri zaleak baino gutxiago dira, baina bada euskal literaturari aire freskoa ekartzeko liburua. Urruna da, baina antzeko bizipenak ditu. Kontatzeko modua berri-tzailea eta apurtzailea da, oso estilo zuzena dauka eta poemek indar handia daukate. Estetikaren aldetik bere xarma ere badauka.

Nik, adibidez, irakurri nuenean, harritu ninduen apur bat. Agian deseroso sentiaraztea ere bada polita eta nik uste liburu honek lortzen duela.

**“Poesia zaleak eleberri zaleak baino gutxiago dira, baina bada euskal literaturari aire freskoa ekartzeko liburua”**

**“Ez da oso liburu kanonikoa, ez ditu neurriak jarraitzen, baina baditu beste baliabide batzuk eta islatu nahi izan ditut”**



POLIEDROA  
PODCASTA

**Mairer Ramirezek *Girgileria* olerki liburua itzuli du eta horri buruz mintzatu gara berarekin**



*Girgileria* da Mairer Ramirez Martin audioarrak itzulitako lehen liburua. **Naia Vallejo Alonso**

# kultura



## Orozkorock koloreztatuz: euskal *mainstream* eta undergroundaren zuribeltzak

Orozkorock elkarteak musikagintzaren eszena aztertzeke solasaldia antolatu zuen maiatzaren 18an ibilbide anitzeko musikariek: Kattalin Barcena, Galder Izagirre, Marta Fontana eta Alberto Egiluz. Zeintzuk dira egungo ereduak aukerak eta mugak? Ba al da *mainstream* ik Euskal Herrian?



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Lur eremu idorra. Klase ertainik dago musika industrian? Underground eta *mainstream*aren mugen inguruko eztabaida antolatu zuen Orozkorock elkarteak aurtengo Orozkorock jaialdiaren baitan. Marta Fontana Martillo, Alberto Egiluz, Galder Izagirre eta Kattalin Barcena aritu ziren solasean, Iñigo Basaguren Duarteren esanetara. Undergrounden adierazpiderik edo espaziorik esanguratsuenak gaztetxeak edota musika aretoak izan dira nola Aiaraldean hala Euskal Herrian. Nola aldatu da musikaren eszena, ordea? Bizi al liteke undergroundetik, *mainstream* jaialdiak nagusitzen ari diren garaiotan? Zein baldintza eskaintzen dituzte bata kala besteak?

Prekarietateak noraino ezaugarritzen du musika sorkuntza? Bidezidor horietan murgildu ziren solasaldian zehar tokiko zein puntako artistak.

"Musikariak ez du konposatu bazarrik egiten. *Mainstream*ak profesionalizazioa ekarri du, eskusiboki horretara dedikatu ahal izatea", aipatu zuen Marta Fontanak hasieran, undregroundetik ozta-ozta bizi daitekeelarekin batera. Izan ere, katebegi ugariko ekosistema da musikagintzarena: sortzaileak daude batetik, ekoiztetxeak bestetik, publikoa, soinu eta argi teknikariak, furgoneta gidariak... "Askotan gehiago kobratzen du furgonetakoak musikariak baino. Musikatik bizi den jendeak saio hirukoitzak egiten ditu bizi ahal izateko: talde bat baino gehiago dituzte, musika klaseak ematen dituzte autonomoak ordaindu ahal izateko".

Denbora eta dirua, biak behar dira musikara dedikatzeke, bere hitzetan.

Alberto Egiluzek, bere aldetik, bakoitzaren espektatiba eta hautuaren garrantzia azaleratu zuen: "Batez ere, etxeko gelan sortzen dira kantak, eta zure apustua da hori aurrera ateratzea. Jendeak doakoa izatea espero du. Belaunaldi gazteak ari zarete horri buelta ematen: musikariak profesional gisa ikusarazten".

Zein errealitate nahastu edo gurutzatzen dira musika eszenaren baitan? Lan eta bizitza kontziliazioa, prekarietatea, lan eskubi-deen berme eza, ezegonkortasuna... Adibide batzuk baino ez dira. "Bi esfera horiek masa kulturarekin edota kapitalismoarekin lotuta daude. Underground hortik kanpo geratzen dena dela esango nuke, musika mota horrek ez die *mainstream*

legeei erantzuten. Merkatu logikatik kanpo dauden espazioekin ere lotuko nuke: gaztetxeekin, borondate politiko edo sozialengatik antolatutako jaialdiekin... Zein musika eta politika garatzen dira horien artean? Zein aukera edo muga ditu horietako bakoitzak?", galdegin zuen Kattalin Barcenak.

Garaiak aldatu egiten dira, baita plazak ere. Galder Izagirre batera jole eta musikariak oso argi aipatu zuen: "1980ko hamarkadan gurtzat underground zena jarrera kontziente, kultural eta sozialarekin lotua zegoen. *Do it yourself* filosofia zen: guk maketatu, kasetetan kopia eta kartelen bidez tabernetan saltzen genituen; edota okupatutako espazioetan kontzertuak antolatu. Guzti hori mundu mailan saretu zen. Frantziatik Euskal Herrirazetozenak Bartzelona edo Madrilerara bideratzen genituen guk...".

Kontzertuen zirkuituak ere eman du buelta. Jada, birak ez dira lehen bezala antolatzen, eta munduratzeko orduan Interneta bihurtu da palanka, plataforma digitalak medio (Spotify, YouTube...). *Mainstream*aren sistemak baldintza ekonomikoetan, erritmoan eta sorkuntza prozesuan nola eragiten du? "Prozesu artistikoen beharrak ez dituzte lan erremuneratuen logikak betetzen. Askatasunez nahi baduzu lan artistiko bat egin, ez zara sekula *mainstream* espazioan sartuko. Enplegu gisa prozesu edo dinamika horretan sartzea erabakitzen baduzu, zure erritmoari uko egiten diozu. Urtebete ematen baduzu abesti berri gabe, jai duzu, edota asko jo behar duzu presente egoteko eta dirua irabazteko. Edota, zuk jo nahiko ez zenukeen tokietan aritu beharra.... Zure proiektu edo pentsamenduaren kontra

egon daitezkeen gauzak ere onartu behar dituzu", aitortu zuen Kattalin Barcenak.

#### Jaialdietan kultura aldaketa

Horrez gain, garai batean jaialdi herrikoiak gailentzen ziren, eta orain festibalak. "Oso garai despolitizatuan bizi gara, alternatiboa dena *mainstreamean* dago egun. Zergatik jada ez da inor saltzen? Artistak goian egoteko edo zer egin behar duela asumitzen da gaur egun".

BBK Live festibalaren antzera, makrojaialdien eredu ari da gailentzen azkenaldian. "Orain arte topaguneak edo elkartasun ekimenak izan dira jaialdi gehienak. Hori galtzen ari da. Undergrounda, beraz, geroz eta prekariagoa da, talde txikiek ez dute bozgorailurik", erantsi zuen Kattalin Barcenak, "beste garai batzuetan ez bezala, orain undergrounda bazterrekoa da, ez dagoelako hori sustengatzen duen mugimendu kultural, politiko edo sozialik". BBK Live ereduak lehen eztabaida pizten zuen, eta egun ez. Zentzu horretan, kritikiko azaldu zen Jota Martinako kidea: "Niri esanguratsua zait, duela hamar urte BBK Liven jotzeagatik eztabaida sortzea, eta gaur egun ez. Orain ez dago gatazkarik horrekiko, artistek boikota egin beharko

## "1980ko hamarkadan guretzat underground zena jarrera kontziente, kultural eta sozialarekin lotua zegoen"

## "Oso garai despolitizatuan bizi gara, alternatiboa dena *mainstreamean* dago egun"

liekete multinazionalei edo halako jaialdiak antolatzen dituzten enpresei? Jendeari bost axola zaio".

Marta Fontanak festibaletan sartzeko plataforma digitaletako entzunaldi edo jarraitzaile kopuruaren muga ere jarri zuen mahai-gainean, "horren arabera, errazagoa edo zailagoa zaizu sartzea". Dena den, ekoiztetxeak ere badira gakoak hor, Galder Izagirrerentzat: "Udalek urtero antolatzen dituzte herriko jaiak bizpahiru enpresen katalogoaren arabera. Ez bazaude, ez zaude udalentsat eskura. Eta Europan berdin".

#### Euskal Herriko *mainstreama*

Euskal Herrian ba al da *mainstream*ik? Baietz uste dute gehienek, Kattalin Barcenak kasu: "Kontsumitzeko *mainstreama* ere bada, bertako soziologia eta kultura kontuan hartuta". Ez da kasualitatea gazteen artean erregetoia edota Zetak zein ETS gisako taldeek arrakasta izatea: "Merkatu propioa dago, batez ere euskaraz, bere logika propioa duena eta geroz eta diru gehiago ematen duena. ETSk datoren urtean BEChirutan beteko du, hori ez du inork orain arte egin".

Baina nork erabakitzen du zein musika entzun? "Lehen ez genion ematen horrenbeste informazio sistema kontrolatzen dute-

nei. 1990eko hamarkadan, onerako edo txarrerako, zure irrati programa edo aldizkaria bilatu behar zenuen", zehaztu zuen Galder Izagirrek.

#### Areto eta gazteteen jaitsiera

Horrez gain, Alberto Egiluzentzat gazteteen sarea erori da; Bilbon jada ez daude horrenbeste alternatiba, "horregatik jotzen du jendeak Internetera. Estatua orain oso poliziala da, denerako behar dira lizentziak... horren aurrean zer egin dezakegu? Hori da galdera, eta erantzunak zein aukerak taldeak beste dira". Musikariena ez ezik masarena dela ardura azpimarratu zuen Kattalin Barcenak: "Espazioen gutxitzea enpreseen zigituzetik ere dator. Nik uste, musikariok txip hori aldatu beharko genukeela: proiektu bat laguntzeko jotzeagatik ezin dugu ezer galdu".

Nola berreskuratu galdutakoa? Ez da erronka makala. Galder Izagirrek espazio fisiko eta birtualak izan zituen hizpide: "Erosotzen eta etxekotzen ari gara, baina gehiegi. Podcast edo blogak zuk kontrolatzen ez dituzun guneean egiten dituzu; baina ez dago kolektiboki eremu berriak bilatzeko joerarik. Espazioak berreskuratu behar dira, baina asmatu edo sortu ere bai". Aukera adina oztopo daude bide horre-

tan, Marta Fonanarentzat: "Zirkuitua txikitu egin da nabarmen. Ez gazteteetan bakarrik, aretoak ere bukatzen ari dira Bartzelonan zein Euskal Herrian, Bartzelonan dau den lau aretoetako alokairua oso garestia baita. Aurrekoan, aseguruan 100.000 euro eskatzen zizkiguten. Orain, legearen uztaitik pasa behar zara: autonomoen altak, aseguruak... Oso zail dago dena".

Egoeraren aurrean, zer orduan? Marta Fontanak, zentzu horretan, Orozkorock elkartearen eta ekimenaren jarduna txalotu zuen: "Orozkon musika kalera eramateko ahalgina egiten da. Musikak zuzeneko behar du, hori da gure habitata".

Publikotik ere luzatu zuten go-goeta: "Musikarien esku badago ere jaialdi propioetako janaria, edaria edo eskaintza zehaztea. Saretzea da gako". Hala, antzerkiak bezala kalea behar du musikak, Galder Izagirreraren esanetan: "Kaleak berreskuratu behar dira. Geroz eta entretenimendu gehiago ditugu etxeetan eta kaleetatik kanpo. Garaje edo lokalen batean entseatzeko elkar-tzeak ere ondorioak ditu". Musikaren eszena, beraz, eszenatokitatik kanpoko hainbat faktorek jartzen dute ezbaian.

Horrenbestez, Orozkorocken solasaldia amaitu bazen ere, eztabaida hasi baino ez da egin.



Kattalin Barcena, Galder Izagirre, Marta Fontana eta Alberto Egiluz musikariek parte hartu zuten solasaldian. Naia Vallejo Torres

# kultura



“Aiaran 42 borrokalari hil baziren ere, herri xumea izan zen benetakoa protagonista”

**SERGIO BALCHADA** (Marin, 1977) HISTORIALARIAK AIARA ONCE MESES EN GUERRA LIBURUA IDATZI DU ETA LARUNBATEAN (EKAINAK 22) AURKEZTUKO DU AGIÑIGAKO ELIZAN 18:00ETAN.



Testua eta argazkiak  
**Aitor Aspuru Saez**

## Ekaineran 22an aurkeztuko duzu zure azken liburua Agiñigan, zeri buruzkoa da?

Lantzen duen gaia da zer gertatu zen eta nola bizi izan zen gerra Aiara udalerrian. Bigarren mailako frontetzat hartu dute oro har, eta egia da ez dagoela gerra gertakari nabarmenik, baina gertakariak jazo ziren. Adibidez, milizien presentziak aldatu zuen aiarraren egunerokoa eta hori garrantzitsua da, nire ustez.

Defentsa sistema bat eraiki zuten. Izan ere, Aiara lehen lerroan zegoen, nahiz eta oso fronte aktiboa ez izan. Hala ere, lubakiak sortu zituzten Gorobelera begira, hor baitzegoen etsaia, erreketak, hain zuzen.

Hori da kontatzen dudana. Nola izan zen aiarraren bizi hamaika hilabeteko gerra horretan, nola bizi ziren milizianoekin, zer egin zuten milizianoek, nola antolatuta ziren, zein batailoio igaro ziren hemendik...

## Nola dokumentatu zara idazteko?

Anitza izan da. Lehenik eta behin bibliografia aztertu dut eta Euskadiko gerrako liburuetan erreparatu diet Arabari buruz aritzen zirenei. Hor hartu ditut Aiari buruz zeuden aipuak.

Horrez gain, fitxategiak bisitatu ditut: Euskadikoa, Salamancakoa oroimen historikoari buruz eta Avilako fitxategi militarra. Informazio nahikoa lortu dut hor eta Ferreroren fitxategian ere zerbait eskuratu dut.

Garaiko prentsa ere baliatu dut eta, nola ez, hartuta-

ko ahozko lekukotzak. Borrokalari aiarrak batekin aritu naiz, Alkartzeak batailoikoa, lotura lanak egiten zutena. Zibilekin ere mintzatu naiz, umeak eta nerabeak zirenak.

## Nola ezaugarrituko zenuke gerra Aiaran?

Fronte lasaia izan zen. Ia ez zen gertatu gerra gertakizunik. Liskarrak egon ziren postu aurreratuen artean, jakiteko non zegoen etsaia. Inoren lurraldea ez zen gunean patruilak bidali zituzten alde biek, bereziki, Gorobel azpira: Agiñiga, Lejartzu, Añes...

Inork ez zuen menderatzen lurralde hori eta bi aldeak sartzen ziren. Unerik garrantzitsuena agian izan zen 1937ko ekainean gertatutakoa Soxo buruan. Bataila egon zen eta indar errepublikarrak borrokatu ziren Lanteno inguruan. Helburua zen Artziniega hartzea eta borroka izan ziren han, Soxon, beste mendi batzuetan...

Baina atzera egiten ari ziren, soilik saiatzen ziren Artziniagaren erorketa moteltzen. Indar errepublikarrak oso moral baxua zuten eta bitarteko gutxi. Defentsa oso zaila zen.

Hitz egin beharko genuke ere herritarren beldurrei buruz. Gerraren hasieran egon ziren eskuindarren atxilotetak, exekuzioren bat... Hortaz, beldurra agertu zen herrian.

Uda beroa izan zen, faxisten errepresio basatiaren albisteak heltzen baitziren, eta Errepublikaren boterea ere urtzen zen. Boterea hartzen zuten talde armatuek eta batzuek iraultza egin nahi zuten. Horrek suposatzen zuen mundu zaharrarekin amaitzea eta horrela erantzuten zioten faxismoaren hilketei.

## Zeintzuk izan ziren protagonista nagusiak?

Ez nizuke esango izenik. Protagonista nagusiak herritar xumeak izan ziren. Sufritu zuten gerra eta bizilagun berriekin bizitzera pasa ziren. Miliziano askoren ideiek ziurrenik ezustean harrapatu zituzten. Baserritarrentzat, kontserbadoreak zirenak mundu berriari eta iraultzari buruz entzutea harrigarria zen. Herri apalena izan zen protagonista, bereziki, Gorobel azpiko herrietan, zeren horiek ikusi zuten nola alde bat zein bestea heltzen zen, garia edo animaliak eta senideren bat eramaten zutela.

## Zenbat hildako egon ziren Aiara gerran?

Galdera zaila da, ez dakit buruz. Borroketan nahikoa hildako egon ziren. Zehazki, borroketan hamasei errepublikar eta 26 faxisten artean. Errepresio errepublikarraren ondorioz, 22 hildako. Faxisten errepresioak hiruzpalau hildako utzi zituen. Hori azaltzeko aipatu beharra dago Aiara ez zela faxisten esku geratu gerrako lehen hilabeteetan. Horiek izan ziren odoltsuenak. Alderantziz, egoera oso bestelakoa izango litzateke. Berez, faxistak 1937ko ekainean heldu ziren Aiara eta orduan zigor ekonomikoak, lan esklabua edo kartzela zen errepresioaren aurpegia, hilketak baino.

## Non eskuratu daiteke liburua?

Printzipioz, ekainaren 22an aurkezpenean Agiñigan. Gero ez dakit nola egingo duan, baina bestela nirekin harremanetan jarrita, edo Enrique Arberasekin, Juanjo Hildagorekin edo Patxi Urruelarekin, eurek sustatu baitute ekimena.

Historia, berdintasuna, arrazismoa, homofobia, moda eta zinema bezalako gaiak jorratzen ditu Teresa Lafraguak Artziniegako Santxotena museoan atondutako panpin erakusketak. Uztailaren 14ra arte bisitatu daiteke, larunbat zein igandetan.

# Historian barrena bidaiaria 1.200 panpinen bidez



Argazkiak  
**Naia Vallejo Torres**

1.200 panpin baino gehiago ikusi daitezke Artziniegako Santxotena Museoan atondutako *Despertar de una nostalgia* erakusketan. Hainbat garaitako piezak bildu ditu Teresa Lafraguak. "Zaharrena XIX. mendearen amaierako panpin bat da, mutil batena. Eta pila bat gustatzen

zait, normalean askoz gehiago direlako emakumezkoak irudikatzen dituzten panpinak", azaldu du museoko zuzendariak. Bere hitzetan, "historia, berdintasuna, arrazismoa, homofobia, moda eta zinema" bezalako gaiak jorratzen ditu erakusketak. Uztailaren 14ra arte egongo da ikusgai, larunbatetan (11:00-14:00 eta 16:30-19:30) eta igandetan (11:00-14:00).



# kultura



## Kutxa bat Larruazabalgo errepublikaren interesak babesteko

1516an, botere feudal desberdinen gehiegikerietatik askatzeko nahiak bultzatuta, Larruazabal Batza osatzen duten lau herrixketako biztanleek haien “errepublikaren interesak defendatzeko” ordenantzak osatu zituzten, haien eskubide eta betebeharrak jasoz. Gure Esku Aiaraldeak “erabakitzeko eskubidearen adibidetzat” jo du gertaera hori.



Testua  
**Aimar Gutierrez  
Bidarte**

Erabakitzeko eskubidea aldarri, iragana, oraina eta etorkizuna harilkatu ditu Gure Esku Aiaraldeak antolaturiko azken ekitaldiak. Ekainaren 16an dozenaka lagun elkartu ziren Belandiako elizan, duela bostehun urte baino gehiago Larruazabalgo Batza osatzen zuten herrixketako bizilagunek “erabakitzeko eskubide praktikara” eramanzuten toki bertsuan.

Urduñako udalerraren baitako lau herrixkek osatzen dute Larruazabal Batza: Mendeika, Belandia, Lendoñobeiti eta Lendoño-goiti. Lau herrixkek 114 biztanle

biltzen dituzte guztira, baina, hedaduran, Urduñako barrendegiarren erdia hartzen dute.

### Gertakarien eszenatokia

Eliza baino Erdi Aroko gotorleku itxura du Belandiako Santa Eulalia elizak, eta, inoiz funtzio hori bete ez duen arren, bere hormek Euskal Herriko ondasun higigarri zaharretako bat babestu dute mende luzez: Larruazabalgo Kutxa.

Jose Ignacio Salazar ikerlari eta historialariak eskaini zituen Kutxaren eta bertan gordetako dokumentuen gaineko zehetasunak, Gure Eskuk antolaturiko hitzorduan. Mexikon jaioa, Urduñako Udaleko idazkaria izan zen Salazar. Idazkari lanpostuak parez

pare zabaldu zizkion Larruazabal Batzako ateak Salazarri; eta, bertako antolaketa administratibo bereziak erakarrira, pasioz eta maitasunez heteriko ikerketa abiatu zuen.

### Larruazabal Kutxa

Galdera nahitaezkoa da; zer gordetzen du kutxa horrek hainbesteko interesa sortzeko? Zer zerikusi izan dezake horrek erabakitzeko eskubidearekin?

Bada Larruazabalgo Kutxak artxibategi funtzioa betetzen duen haritz baten enborra da. Lau giltzarrapok eta hainbat burdin barrak ixten dute kutxa, eta hau zabaltzeko ezinbestekoa da lau herrixketako alkateen presentzia. Alkate bakoitzak giltzarrapo ba-

ten giltza gordetzen du, eta alkateren baten faltan ezinezkoa da artxibategia zabaltzea.

Objektu berezia da, are dokumentu bereziagoak gordetzeko sortua: bertan gorde izan dira lau herrixketako biztanleek 1516ko maiatzaren 4an erredaktatu zituzten ordenantzak.

### “Errepublikaren defentsan”

Botere feudal desberdinen gehiegikerietatik askatzeko nahiak bultzatuta, lau herrixketako bizilagunek gehien kome-ni zitzaie forua aukeratu zuten. 1516ko ordenantzetan idatziz jasoz zituzten bertako herritarren eskubide eta betebeharrak propioak.

Larruazabalgo Kutxan gordetako ordenantzen dokumentu ho-

rrek, lau herrixka horietako ondasun publikoak antolatzeko eta babesteko arauak jasotzen ditu hemeziti kapitulu desberdinetan; halanola nekazaritzari, abeltzaintzari edota mendien zaintza eta ustiapenari buruzko arauak. Funtsean Lendoño-goiti, Lendoñobeiti, Mendeika eta Belandiako “errepublika babesteko arauak”.

Eta bai, errepublika hitza erabili zuten 1516 hartan, lau herrixkek osatutako entitatea definitzeko: interes publiko eta komunalarren adierazle.

Duela bostehun urte idatzitako arauak eta lau herrixkek osatutako egitura juridikoak, administrazio handiagoen esku-hartzeetatik babestu ditu Larruazabalgo biztanleak mende luzez, Lendoño-

beiti, Lendoñogoiti, Belandia eta Mendeikako idiosinkrazia bizirik mantenduz.

Historia liburuetatik kanpo geratu bada ere, duela bostehun urte Larruazabalen gertatutakoa aldarrikatu zuen Jose Ignacio Salazarrek bere hitzartzean: “eguneroko bizitzako kontuak eta auzokideen arteko harremanak ez dira maiz izaten historialarien ikerketa iturri, baina horrek ez die garrantzia kendu behar. Larruazabalgo Kutxan gordetako dokumentuei esker, gure aurretik bizi izan diren herritarrek hitz egiten digute”.

#### Herri libre bat helburu

Gorobel mendilerroaren oinetan, Belandia eta Oletako landak lotzen ditu Sopeñako bideak, antzinako eskualdeko komunikazio bide nagusi izandakoa. Hiribilduak, herrixkaketa herritarrak lotzen zituen modu berean, erabakitzeko eskubidearen sinbolo bilka tau nahi du Gure Eskuk.

Datorren ekainaren 30ean urteroko hitzorduari helduko diote Oletako landetan; erabakitzeko eskubidearen aldeko festa egingo dute bertan.

Larruazabalgo biztanleek 1516an egin bezala, Euskal Herritarrek ere haien etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea aldarrikatuko dute; “herri libre bat helburu”.

**Objektu berezia da Larruazabalgo kutxa, are dokumentu bereziagoak gordetzeko sortua: bertan gorde izan dira lau herrixketako biztanleek 1516ko maiatzaren 4an erredaktatu zituzten “errepublika babesteko arauak”**



# kirola

“Bizitzan baliaitu daitezkeen trebetasunak garatu ditut xakean”



**ITSASNE EGIAK** (Laudio, 1993) BIGARREN POSTUA LORTU ZUEN EUSKADIKO XAKE TXAPELKETAN. LEHIAKETA HORRI BURUZ ZEIN ESPERO ZUENARI BURUZ MINTZATU DA.



Testua **Aitor Aspuru Saez**  
Argazkia **Almar Gutierrez Bidarte**

**Araian aritu zara Euskadiko Xake Txapelketan eta, beste jokalaririk bat kenduta, onena izan zinen. Nola baloratzen duzu emaitza?**

Nire emaitzarik onena izan zen. Sorpresa handia izan zen. Maila handiko emakume eta gazteak bildu ginen.

**Zergatik uste duzu egin zenuela horren ondo?**

Nire helburua ahalik eta ondoen jolastea eta puntu guztien erdia lortzea zen. Asteazkenean zehar hausnarketa egin ondoren, kontzentrazio eta atentzioa desbideratu barik jokatu nuelako izan daiteke. Auskalo. Buruak eta emozioek esku hartzen dute.

**Lehen aldia da hain postu onean sailkatzen zarela?**

Bai. Aurreko urtean bosgarren izan nintzen. Eta aurrekoan, Laudion izan zena, emaitza txarrak izan nintzen. Baina emaitzak, emaitzak dira.

**Zure aurkari guztiak ezagutzen zenituen?**

Gehienak bai. Beste txapelketetan elkar ikusi dugu. Emakumezkoak ezagutzen nituen batez ere. Normalean Araban lehiatzen naiz, baina Bizkaira eta Nafarroara ere joan naiz noizean behin. Bestalde, partaide batzuk faltan bota ditut, Euskal Herrian emakume jokalaririk anitzak daude eta.

**Hau lortuta, zein izango da zure hurrengo urratsa?**

Jokatzen segitzea da nire helburua xakean, bizitzak eta lanak ahalbidetzen badu. Euskal Herrian jokalaririk eta txapelketa anitzak daude, ofizialak zein sozialak, partida azkar edo mantsagoekin. Internet bidez ere jokatu daiteke.

**Zer eman dizu xakeak zure bizitzan?**

Bizitzan baliaitu daitezkeen trebetasunak garatu ditut. Irtenbideak bilatu daitezke, nahiz eta galduta sentitu. Eta, batez ere, lagunak egin ditut.

**Nolakoa da xake giroa?**

Partida momentuan lehiakorra. Batzutan sufritzen da, eta ez irabazi edo galtzeagatik soilik. Izan ere, akats

batek pikutara eraman dezake dena, nahiz eta partida bikaina egin.

Aurkariak zuk baino hobeto jokatu badu, mihasmena baino ez du merezi, eta partida amaitzean eskua eman eta umorea lasaitzen da.

**Noiz hasi zinen xakean jokatzen eta zer diziplina eta prestaketa mota exijitu dizu kirol honek?**

Unibertsitate ikasketen amaieran Xake Klubarekin kontaktatu nuen. Klaseak jaso nituen. Piezak mugitzen ikasi eta, prest sentitu nintzenean, jokoan murgildu nintzen.

Ez dut entrenamendu espezifikorik hartzen, baina liburak irakurri eta online partidak jolasten ditut. Niretzat dibertimendua da xakea.

**Zure erreferentzia den jokalaririk duzu?**

Jokalaririk handiak erreferentzia moduan hartuta, Judith Polgar da burura etortzen zaidan lehena. Xake munduan ibilbide bikaina garatu egin zuen. Horrez gain, gertuago ditudan Laudion jokalaririk nabarmendu nahiiko nituzke, estimu handian dauzkat.



## BOLA

## Euskadiko Bola Txapelketak giro aparta sortu du Luiaondon



Araba ordezkatu zuten jokalariek guztiak ziren eskualdekoak. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

### Testua Aitor Aspuru Saez

Oso arrakastatsua izanzen Leku-batxe bola klubak iragan larunbatean (ekainak 15) antolatutako Euskadiko Txapelketa. Tentsioa egon zen bolatokian, emaitzak oso estuak izan zirelako, baina adiskidetasuna izan zen nagusi.

Berez, Aiaraldeko bolariak maila aparta erakutsi zuten. Alberto Lopez eta Aitor Parrilla izan ziren lehenengo bi sailkatuak gizonen artean eta Estrella Alonso eta Bea Isasi bigarren eta hirugarren geratu ziren emakumezkoen kategorian. Estrella Alonsok berdinketa lortu zuen puntuetan txapelkunarekin, Josune Sarrionandiarekin, eta berdintasun egoera hori apurtzeko bi jaurtiketa txanda egin behar izan zituzten, lehenengoan puntu kopuru bera esku-

ratu baitzuten. Dударikgabe, jaurtiketa horietan sortu zen eguerdiko zirrara unerik biziena.

56 parte hartzaile aritu ziren orotara norgehiagokan, 08:00etatik 15:00ak arte. Aiaraldeen presentzia nabarmena izan zen oro har, eskualdeko hemeretzi kidek hartu baitzuten parte jaurtiketan. Hain zuzen, Arabako ordezkari guztiak ziren eskualdekoak (Urduñako jokalariek ere parte hartu zuten).

### Pantaila erraldoia

Bestalde, giroa aparta izan zen. Lekubatzek pantaila erraldoia prestatu zuen frontoian zuzeneko emisioa egiteko, jokalariek ez baitzen sartzen bolatokian aldi berean. Horrez gain, mokadu aparta prestatu zuten aiararrek eta gero, gainera, Oleta jatetxean bazkaldu zuten guztiek, sariak banatzeko.

### ZUZENEAN

**Aiaraldea Komunikabideak zuzenean emititu zuen jardunaldia, eta bideo osoa ikusgai dago Aiaraldea.eus atarian**



## BATZAR OROKORRA

A I A R A L D E A  
K O O P E R A T I B A  
E L K A R T E A

**Eguna:** 2024ko ekainaren 22a, larunbata

**Ordua:** 10:00etan 1. deialdia / 10:30etan 2. deialdia / 11:00etan 3. deialdia

**Tokia:** Aiaraldea Ekintzen Faktoria (Errotari kalea 4-8, Audio, Araba)

### Kooperatibako bazkideei deialdia

Bazkideei hurrengo astean email zein Whatsapp bidez helaraziko zaie beharrezko dokumentazioa

## TRAILA

## Dena prest Amurrio Trail Lasterketarako



Amurrio inguruko mendietan barrena izango da lasterketa. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

### Testua Aitor Aspuru Saez

Datorren igandean (ekainak 23) egingo dute Amurrio Trail Lasterketaren XI. edizioa. Goizeko 10:00etan izango da irteera, eta bi ibilbide egingo dira: motza (13,5 kilometrokoa) eta luzea (22 kilometrokoa).

Horrez gain, Ipar Martxa ere egingo dute. Proba horretako parte hartzaileak bost minutu beranduago abiatuko dira. Kasu horretan ere bi talde egingo dira: federatuek 10,66 kilometroko bidea egingo dute, eta gainontzekoek 8,65 kilometrokoa. Buscametas.com webgunean eman daiteke izena.

Ekainak 20, osteguna, 17:30ean  
Aiaraldea Ekintzen Faktorian



## Nola bideratu

**INDARKERIA MATXISTA**

**kasuak udaleku edo aisialdi guneetan?**

hezitzaileentzat solasaldia



# kirola



**“Beste bizitza bat eman dit kickboxingak”**

**IDOIA ARZUAGA** (Laudio, 1996) ASTEBURU HONETAN BORROKATU BEHAR ZEN URDUÑAN EGINGO DEN LEHIAKETAN, BAINA, AZKENEAN EZ DU AURKARIRIK IZANGO. HALA ERE, KIROLAK NOLA ERAGITEN DION AZALDU DU.



Testua eta argazkiak  
**Aitor Aspuru**

**Urduñan borrokatzeko asmoa zenuen, baina ez da posible izango, ezta?**

Bai, nire aurkariak lesioa izan du eta ez dugu topatu ordezkorik. Pena handia da. Nesken kasuan oso zaila da borrokalariak topatzea. Gutxi daude eta pisuak oso bestelakoak dira. Nesken pisuan 50 kilokoak dira gehienak eta nire kategorian, 60-62 kilokoan, gutxi daude.

Ezagutzen ditugu nire pisuko gehienak eta, oro har, borroka pilo dituzte. Urduñakoa nire laugarren borroka izan behar zen eta zaila da norgehiagoka mordoia ez duen arerioa topatzea. Izan ere, ringean hori nabaritzen da, nork duen eskarmentu handiagoa.

**Hiru borroka izan dituzu jadanik, nolakoak izan dira?**

Debuta oso txarra izan zen, baina eutsi nituen hiru *round* eta lan ona egin genuen. Gero Torrelavegan borrokatu nintzen berriro eta hori oso ona izan zen. Nire ustez, borroka oso ona egin nuen, nahiz eta aurkaria ere aparta izan zen. Ikuskizun polita eskaini genuen.

Azkenik, Amurriion egokitu zitzaidan neska altua eta zaila zen.

**Borrokaz borroka nabaritu duzu hobekuntza?**

Bai, handia. Ringera igotzen zara eta burua aldatzen da. Aurkariarentzat baino ez dituzu begiak eta ahal bezain ondo aritzen zara.

**Nola hasi zinen kirol honetan?**

Asier Arzarekin. Nik ez nuen inoiz kirola egin eta *cross training* egin ondoren, izena eman nuen kickboxingean, gehienbat entrenatzeko, ez nuen gogoko kirola bereziki. Baina taldea osatu genuen, giro polita zegoen eta jende oso ona entrenatzen.

Orain nire pasioa da entrenatzea, jendea ezagutzea, borrokatzea... Oso gustura nago.

**Zer eman dizu kirolak?**

Beste bizitza bat eman dit. Kirola eta kickboxinga kenduko baliz kidakete, bizitzaren zati handia galduko nuke.

**Zerk bultzatzen zaitu lehiatzera?**

Bultzatzen nau nire jendeak, nire familiak nire lagunek... Babesten naute pilo eta motibazio hori daukat. Nire aitak oso gogoko du ni ikustea. Motibazioa da hor gainean egoteko eta irabazteko.

**Zenbat egun entrenatzen duzu astero?**

Ia egunero. Lanean ordutegi txarra daukat. Hortaz, Chock Deera bi egunez etortzen naiz astean zehar. Asteburutan ere etortzen naiz eta gero kanpora jotzen dugu edo kanpotik bertaratzen dira kirolariak.

**“Hasieran beldurra nion kolpeak jasotzeari, baina mentalitatea aldatu dut. Mina sortzen badidate, nik ere eragingo dut”**

Horrez gain, nire kabuz ere entrenatzen dut.

**Nolako izan da zure bilakera kirol honetan?**

Hasieran beldurra nion kolpeak jasotzeari, baina mentalitatea aldatu dut. Mina sortzen badidate, nik ere eragingo dut. Jendeak ez du pentsatzen emakumeok ere gai garenik horretarako ringean, baina hau kirol bat da eta hor gainean dena aldatzen da. Hori ere baliogarria da kalean.

Neskek aldatu behar dugu pentsaera kirol honi dagokionez. Ez da soilik bortizkeria, jotzea eta jasotzea. Motibazioa eta diziplina ere bada.

Egun txarrak izan arren, motibazioa eta diziplina izan behar dira entrenatzera etortzeko. Horrek aldatzen zaitu bai fisiko-ki eta baita psikologikoki ere.

**Kickboxingak segurtasuna eman dizu zure bizitzan?**

Bai, segurtasun handiagoa. Badakit jotzen eta lehen ez nekien ezer defentsari buruz. Beldur apur bat gehiago nuen.

**Zer da gehien gogoko duzuna kirol honetan?**

Hanekin borrokatzea. Boxeatu dezaket ere, baina nahiago ditut hankak.

**Animatuko zenuke jendea Urduñako borrokaldira joatean?**

Bai, jendea joan dadila eta estilo ezberdinak ikus ditzala.



Ia egunero entrenatzen saiatzen da Idoia Arzuaga. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)



# Idiomas

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA

**Ikasturte osoa:**

**660€**

50 urtetik gorako esperientzia  
Cambridgeko azterketak  
prestatzeko zentroa

# kirola

**“Lankideek hautatu ninduten Olinpiar Jokoetako lastargia eramateko, nik ez nuen nire burua aurkeztu”**



**JAVIER LOPEZ PEREZ (Amurrio, 1971)** BRIDGESTONE ENPRESAKO LANGILEA DA ETA HORRI ESKER OLINPIAR JOKOETAKO LASTARGIA ERAMANGO DU. AUKERA HORI NOLA SORTU ZAION AZALDU DU.



Testua eta argazkiak  
**Txabi Alvarado Bañares**

## **Olinpiar Jokoen lastargia eramango duzu 200 metro-tan, nola sortu zaizu aukera?**

Ni Bridgestone enpresako zerbitzu medikuen ardura duna naiz Basaurin. 1.000 langile inguru daude eta artatu ez ezik, fisioterapia, erizaintza edo nutrizio atalak ere kudeatzen ditut. Konpainia da Olinpiar Jokoen babesle ofiziala eta duela urte eta erdi bidali zizkiguten mezuak galdetzeko ea nortzuk geunden prest laguntzeko Parisen, jokoek iraun bitartean. Hor hasi zen abentura. Nik eman nuen izena, hainbat jendek egin zuen moduan.

Horrela sortu zen lehen harremana. Handik eta hila-bete gutxira mezu elektronikoko gehiago bidali zizkiguten, enpresak bazuelako aukera lastargia zenbait tartetan eramateko. Hori egiteko hautatua izan behar zizuten eta Basaurin (han dago nire lanpostua) ni hautatu ninduten.

Lankideek egin zuten. Nik ez nuen nire burua aurkeztu eta ez nuen ezta pentsatu ere. Ez nekien zehazki zeintzuk ziren bozketaren irizpideak.

## **Asko izango zarete Bridgestoneko langileak Olinpiar Jokoetan?**

Guztira, uste dut hogeitaz gora. Estatu Espainiarreko bi, Madrilgo bat eta biok. Uztailaren 10ean Auxerren egongo gara eta 11n hartuko dugu lastargia. Korrika egingo dugu, ez oso azkar, eta hartuko dugu lastargia eta hurrengoari emango diogu.

Egun berean azalduko digute dena ondo eta jantzi ofiziala eramango dugu, Olinpiar Jokoen, alegia.

## **Baldintzak jarri dizkizute horretarako guztirako?**

Polizia erregistroak begiratu dituzte, eta sinatu behar izan dugu soilik arropa ofiziala jantziko dugula, eta ez diegula gure buruei argazkiak edo bideoak egingo. Baldintza ugari dago. Berez, nahiko zurruna da. Eguna eta ordua eskaintzen dizute, eta ezin baduzu, beste batek egingo du, ez dute aldaketarik egingo.

## **Nola bizitzen ari zara?**

Ezustean harrapatu ninduen. Boluntario aritzeko nik eman nuen izena eta betidanik izan dut gogoko kirola eta laguntzea. Esaterako, AEFAT, SD Zamudio eta Amurrio Traileko laguntzailea naiz. Pandemiaren erakarpena egin nuen eta gogoko dut, kirolarekin harremana badu, are gehiago.

Bestalde, medikua naizenez, suposatzen nuen puntu gehigarriren bat izango nuela. Ez dakit mediku gisa joango naizen, ze antolakuntzak badauzka.

## **Boluntario gisa aritzea duzu buruan oraindik?**

Bai, bai, uztailaren 27an joango naiz, abuztuaren 10era arte. Aniztasun funtzionala duten herritarrek lagundu, kirolariak ere lagundu... Uste dut hori egingo dudala.

Jadanik bidali digute lanen banaketa, zein egun ditugun atsedeen hartzeko... Bridgestoneko hirurogei boluntario joango gara. Ni piraguismo eta arraunketa egotzan egongo naiz.

## **Zu hautatzeko arrazoietako bat izan da Olinpiar Jokoen balioekin bat egiten duzula.**

Bai, nik uste dut nire lana aintzat hartu ez ezik (lan-

kideen osasuna zaintzeko ahal beste egiten dugu), zenbait elkartetan laguntzen dudala ere kontuan hartu dutela. Bereziki, AEFATen. Maratoietan bultzatu ditut aulkiak eta uste dut hori interesgarria dela.

## **Zer espero duzu bizipenaren aldetik?**

Ezohiko zerbait bizitzea da nire asmoa. Inoiz ez dut parte hartu Olinpiar Jokoetan eta oso gogoko dut gimnasia eta atletismoa ikustea. Ez dakit itzuliko naizen, baina hau topera biziko dut.

## **Kirola egiten duzu?**

Bai, zalea naiz. Mendira joaten naiz, noizean behin lasterketetan parte hartzen dut. Kirola eta elkartasuna da nire lotura. Oso polita da.

Saiatzen gara bost maratoi egiten urtero AEFATekin: Donostia, Valentzia, Madril, Sevilla eta Bartzelona. Hamabost korrikalari joaten gara AEFATekin eta umeen aulki gurpildunak bultzatzen ditugu ibilbide osoan.

Hori da nire lana gehienbat. Familiarekin egoten gara eta giro horretan gaude.

Niretzat bizitzea irakaspena da asteburu bakoitza euren. Guretzat eguneroko arazoak direnak, euren arazoan alban oso erlatiboak dira. Haurrak oso hunkituta daude, errutinatik ateratzen dira eta.

## **Baliogarria izango zaizu eskarmentu hori Olinpiar Jokoetan?**

Uste dut baietz, ikusita zer nolako ardurak izango ditudan. Laguntzea, elkartasuna eta kidetasuna dira sari handia berez. Are gehiago Olinpiar Jokoetan.

# herriko plaza



## Unax

Irribarre bihurria eta handitzen daroagizu, mutikoa zara jada. Zorionak Unax 12. urtebetetzean etxekoan partez, Ibai, ama, aita, amatxi eta aitite.

**Etxekoak**



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia [agurrak@aiaraldea.eus](mailto:agurrak@aiaraldea.eus) helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Irailaren 11an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

## Denborapasak

### ERRAZA

		2			4	8	3	
6		3		2	8	4		7
			3		9		5	2
7		8	4	5	6			
9	2	6		3			4	8
	5			8		7		3
8	7	1	6	9		3	2	4
3	6	5		4				
	4	9				6	7	

### OSO ZAILA

				2				
9		6		7				8
8							4	
				6			4	
6								9
	1	2	4				3	
				3				8
		8					7	1
				5	8	9		

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



## *Girgileria* liburuaren ale bat zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Maider Ramirez Martin audioarrak itzultitako *Girgileria* olerki liburuaren ale baten zozketa **Parte hartzeko** sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** Ekainak 28, ostirala, 12:00etan.



## IRAKURKETA GUNEA

### ZURE GORPUTZA ZUREA DA

**Idazlea:** Lucía Serrano

**Itzultzailea:** Maialen Mujika

**Argitaletxea:** Nubeocho

Ipuin honek haurrari erakusten dio daukan gorputza daukala ere, maitatu egin behar duela. Gainera, maite duen gorputz hori berea dela eta berak erabaki behar duela nork ikusi eta nori ezetz esan ere irakasten dio.



### BELDURRIK GABE

**Egilea:** Manuel L. Alonso

**Argitaletxea:** Begiko

**Adina:** 12 urtetatik gora

“Ezberdina” da Bittor eta horregatik beldurra du. Besteengan pizten dituen emozioen beldur da. Liburuan Leon ezagutuko du eta berarekin batera bizitzaren abenturaz gozaten hasiko da.



## SORMENA



### AZALPENA:

Haurra sortzailea da, sormena landu eta garatzeko teknika den arren, haurrak bere barnean duen su txikia ere bada.

Hori ateratzeko balibideak eskaini behar zaizkio haurrari.

**ESPAZIOA:**Sormena egokien lantzeko espazioak gunen naturalak dira, edo behintzat horiekin harreman zuzena duten gunek. Inspirazioa lortzea oso zaila da eremu itxi batean edo pantailaz inguratua dagoen eremu batean.

Beraz, sormena landu nahi badugu, goazen parkera, basora edo ingurune naturalera.

**DENBORA:** Sortzeko, eta sormena lantzeko haurrek

denbora behar dute. Aspertu egin behar dira, aspertzeak ekartzen dien egonezinak beraien sormena pizten baitu. Haurra uneroro gauzak egiten baditu, berarentzako denbora izan gabe ez du sormena garatuko.

**BALIABIDEAK:** Sortzeko baliabide egokiak behar ditu haurrak. Jostailuei erreparatzen badiogu, geroz eta egitura gutxiago duten elementuek hobeto landuko dute sormena.

Hau da, plastikozko jostailu errealistekin, haurrak jolas bakarra egin ahal izango du. Aldiz, egitura konkretu bat ez duten elementuekin, haurrek edozer gauza sortu ahal izango dute, janaria izango dira egun batean, etxola beste egun batean, bitxiak bestean edo dirua bestean... Aukera ugari horiek posible egiten duten elementuek garatuko dute haurraren sormena. Elementu horiek, gainera, material naturalez eginak badaude, sentsoialki askoz ere baliabide gehiago eskainiko dizkiote haurrari eta beraz, sormenean lagundu.

Sormena haurraren hazieran ezinbestekoa da, eskaini diezaizkiogun denbora, pazientzia eta balibide egokiak.

**SORMENAZ HEZI!**



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Sua

Udako soltizioa heldu zaigu, gaurik laburrena, aro berri baten hasiera. Soltizioarekin batera suak piztuko dira Euskal Herriko txoko ezberdinetan, gaua inoiz ez dadin gaua izan eta egunean zehar dagoen eguzkiaren beroa eta argia lurrian izan dezagun babesleku.

Sua piztuko dugu, aro aldaketan txarrak botatzeko eta onak jasotzeko sua, gu barrutik garbitzeko sua, indarra emango digun sua.

Zer “txar” botako nituzke sutara? Hasiko nintzateke, euskararen aurka egiten duten horiekin. Euskaraz bizi ahal izateko aukerak eta baliabideak sortzen dituztenen aurka jotzen duten pertsona eta instituzioak botako nituzke, aro berrian beraien iritsia aldatu dezaten.


Baita muga faltak ere botako nituzke sutara. Haurrak hezteko ekaritzen ditugu mundura, kontzientziatik hezteko, helduaren ardura da mugak jartzea. Mugarik gabe haurra galdu egiten da.

Haurrak genero rolen arabera hezteko dagoen ohitura ere sutara botako nuke. Askatasunean hezi behar dira haurrak, kritikotasunean, eta txikitatik apurtu egin behar da genero rolen, arropen bitartasunarekin, oparien bitartasunarekin, tratatzeko modu bitarrarekin. Txar hori sutara eta jendartean onartuko den paktu sozial bat ea egiten dugun aro berriarekin batera!

Futbola ere sutara botako nuke goitik behera eraldatua izan dadin. Gaur egun guztiz kutsatua dagoen kirola da, arrazista da, matxista, biolentoa, lehiakorra... Futbola goitik behera aldatu behar da aro berrian.

Eskola eredu eta haurrek astean zehar daukaten eguneko programazio guztiz bete ere sutara bidaliko nuke. Eskola eredu jolasean oinarritu beharko litzateke, naturarekin harreman zuzena izanik, haurraren (norbanakoen eta ez taldearen) beharrak ondo erantzun beharko litzateke... Eta produktibitatea eta umearen geroko jakintza-kompetentzia oinarrian duten eskolaz kanpoko guztiak ere sutara bidali beharko litzateke. Haurrak, eta helduak, ere jolastu egin behar du, jolasa bizitza da eta bizitza jolasa da. Eskolaz kanpokoak gozatzeko eta jolasteko tartea izan behar dira haurrarentzako, ez eskolan bezala ikasten jarraitzeko metodo eta pedagogia eskas batekin.

Zenbat gauza sutara botatzeko, astiro hasiko gara, aspaldi hasi ginen bezala, suaren indarrari laguntza eskatuko diogu eta mundua hezkuntzatik pixkanaka-pixkanaka eraldatzen joango gara.



# HAN eta HEMEN

Badira hogeitau gauza bi irudietan ageri direnak. Ea aurkitzen dituzun.




Hau da kutxako giltzarrapoa.



# Giltza


Mari Purtzilen altxorren kutxa zabaltzeko, giltzarrapoaren giltza behar da. Zein da? Aurkitu nahi baduzu, formari erreparatu behar diozu.



**SOSLAIa** Zein da zomorro itsusi honen silueta zuzena?



# SOLUZIOAK



# Kontra

## Aiaraldetik mundura



### Marisa Stalder Torres

JATORRIA  
LAUDIO (1969)

BIZILEKUA  
ALBEUVE (SUITZA)

BIDAIAREN ARRAZOIA  
MAITASUNA

### SUITZA



#### DESKRIBAPENA

26 estatus osatutako konfederazioa da Suitza. Ekonomia gune garrantzitsua da, bertako bankuek mundu osoko dirua erakarri eta egiten diren eragiketen gaineko sekretua mantentzen dutelako. Horrez gain, herrialdeko naturgune eta tontorrek mendizale ugari ere erakartzen dituzte.

#### AZALERA

41.285 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

8,9 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Alemana, frantsesa, italiara eta erretorromaniera.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus  
Tifnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio, Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunat Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

## “Suitza hil aurretik ikusi beharreko herrialdea da, munduaren birika da”

**Albeuven bizizara. Zerk eraman zaitu Suitzako herri horretan bizitzera?**

Maitasunakeraman ninduen. Suitzar bat ezagutu nuen, eta bizitzaren gorabeherak medio, bertara joateko erabakia hartu behar izan genuen. 25 urte pasatu dira ordutik. Momentuz, nire oraina hemen dago, baina ez dakit non egongo naizen etorkizunean.

**Nolakoa da zure egunerokotasuna bertan?**

Oso goiz altxatzen naiz, eta egun osoa aprobeztatzen dut horrela goizeko zazpietatik iluntzeko zortziak arte. Esnatu bezain pronto mediatu egiten dut, eta lanera joaten naiz ondoren. Etxebizitzak zaintzen ditut duela 23 urtetik, eta mendiz inguratuta bizitzeko pribilegioa dut.

Horrek sekulako bakea ematen dit, eta niri gustatzen zaiz-

kidan gauzak egiteko inspirazio handia ere bai. Horregatik, etxera iristean bazkaldu egiten dut: Suitzan eguerdiko hamabietan jaten da, goiz samar.

Ondoren, eguneroko ariketak egiten ditut, eta gero margotzeko denbora hartzen dut, hori baita nire pasioa. Nire senarrarekin, alabarekin eta lagunekin egoteko denbora ere izaten dut.

**Margolaria zara beraz. Zer motatako margolanak egiten dituzu?**

Bai, duela hamarkada bat hasi nintzen, ez asko. Duela oso gutxi hazi da nigan grina hori, baina nire pasioa da, guztiaz ahazten naiz.

Margotzeari duela hamairu urte ekin nion, gaixotasun baten ondorioz: minbizia izan nuen, eta une horrek beti geroratu izan ditudan kontuen inguruan hausnartzera eraman

ninduen. Momentu horretan geroratu eta esan nuen: "noiz hori orain da".

Ez nekien nondik hasi, inoiz ez baititut margo klaseak jaso; baina margotzen hasi eta gauza berriak egiteko konfiantza hartu nuen. Margotzea niretzat erronka bat da.

**Nolakoa da Albeuve? Eta Suitza?**

Albeuve oso biztanle gutxiko herria da, eta lakuz zein mendiz inguratuta dago; naturan. Eraikin handirik ez dagoen tokia da, denak etxetxoak dira. Zortea da naturaren soinuekin esnatzea eguneroko.

Suitza oso herrialde diziplinatua da, jende guztia oso goiz esnatzen da, 12:00etan bazkaltzen daude, eta 20:00etan lo. Herrietan oso bizitza lasaia daramagu, kirolasko praktikak dira. Alabaina, jendeak denbora asko pasatzen du etxeetan, herrial-


de oso garestia baita. Orokorrean, natura protagonista den herrialdea da, baina Suitza zentzu guztietan herrialde aberatsa izateagatik da esanguratsua.

**Zer da Euskal Herriatik faltan botatzen duzuna?**

Familia, jakina. Baita bertako janaria ere, oso ona baita. Ildo beretik, bertako bizitza soziala ere botatzen dut faltan, Euskal Herrian dena dago egina bizitza sozialerako, hemen barnerago bizi gara. Jendearekin lotura ez da berdina, eta niri asko gustatzen zait sozializatzea.

Dena den, antzekotasun gehiago topatzen ditu ezberdintasunak baino. Bizi estiloa ez da bera, baina paisaia, etxeak... oso antzekoak dira. Askok erraztu dit Euskal Herrian bizitzeak Suitzara egokitze orduan. Suitza hil aurretik ikusi beharreko herrialdea da, munduaren birika da, merezi du.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA